

KOSTUAK

Gure helburua ahalik eta kostu finko gutxien izatea da, hauek diru sarrerek zeharo baldintzatzen baitituzte eta murrizketak egin behar izatekotan ezin baitira ekiditu. Gainera, gure negozioaren izaerak, kostu mota hauek minimizatzea baimentzen digu. Izan ere, gure kostu finko nagusiak; furgonetaren leasing kuota eta giza baliabideen aseguruak izango lirateke. Gainontzeko kostuak eskainitako edo kontratatutako zerbitzu kantitate aldakorren menpean egongo lirateke; langileen soldata era formakuntza, catering zerbitzua, publizitatea zainketa geletako baliabideak (sehaskak, koltxonetak, material didaktikoa...). Bestalde, argitu behar dugu, gure jarduera garatzeko leku fisikoa beste enpresek jartzen dutela, hauekin alokairua negoziatuko da, bertan lortutako irabazietatik portzentai bat ordainduko diegularik.

